

Erbí ori zebillen



ERBI ORI ZEBILLEN

(ARRUAZU, Modesto de Lecumberri)
Kantaria: Ana Telletxea

Erbí ori zebillen
Beti pikardian;
Gabaz soroan jan da
Egunaz mendian.

Erbiar gorria zan,
Begiak larriak,
Buztana motza eta
Luze belarriak.

Lazoa jarri zion
Soroko sarreran,
An arrapa zezala
Bere etorreran.

Erbí au etorri zan
Lenengo garaien
Lazoa sartu eta
Gelditu zitzaian.

Auzoko bat zebillen
Berriz atalaien;
Andikan ostu eta
Ark eraman zien.

Ankak eta muturra
Lotuta jartzian,
Sosegatu ziraden
Kontentu onian.

Ankak libratu eta
Bazebillen dantzan;
Leiotikan kanpora
Saltatu egin zan.

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. IKASTURTEETAN KOMUNIKAZIO
GAITASUNA ETA LITERATURA GAITASUNA HAUR FOLKLOREKO KANTEN BIDEZ GARATZEKO

Paula Kasares

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO 1. ETA 2. IKASTURTEETAN ARTE ETA
MUSIKA GAITASUNA HAUR FOLKLOREKO HERRI KANTUEN BIDEZ GARATZEKO

Arantza Almoguera

Erbi ori zebillen

Paula Kasares

1. BERTSIOA	2. BERTSIOA: EUSKARA BATUAN
Erbi ori zebillen	Erbi hori zebilen
Erbi ori zebillen beti pikardian; gabaz soroan jan da egunaz mendian.	Erbi hori zebilen beti pikardian; gauez soroan jan eta egunez mendian.
Erbia gorria zan, begiak larriak, buztana motza eta luze belarriak.	Erbia gorria zen, begiak larriak, buztana motza eta luze belarriak.
Lazoa jarri zion soroko sarreran, an arrapa zezala bere etorreran.	Lazoa jarri zion soroko sarreran, han harrapa zezala bere etorreran.
Erbi au etorri zan lenengo garaian lazoan sartu eta gelditu zitzaien.	Erbi hau etorri zen lehenengo garaian lazoan sartu eta gelditu zitzaien.
Auzoko bat zebillen berriz atalaian; andikan ostu eta ark eraman zien.	Auzoko bat zebilen berriz atalaian; handik ostu eta hark eraman zuen.
Ankak eta muturra lotuta jartzian, sosegatu ziraden kontentu onian.	Hankak eta muturra lotuta jartzean, sosegatu ziren kontentu onean.
Ankak libratu eta bazebillen dantzan; leiotikan kanpora saltatu egin zan.	Hankak libratu eta bazebilen dantzan; leihotik kanpora saltatu egin zen.

Kontakizunezko kanta hau lantzeko kamishibai teknikaz baliatuko gara.

1. Lanketaren aurreko jarduera. Ikasleei erbi baten istorioa entzungo dugula esango diegu. Galdera batzuk egingo dizkiegu: erbia nolako animalia den, non bizi den, zer jaten duen...
2. Lehen entzuketa. Kanta entzungo dugu. Behin irudirik gabe; bigarrena kamishibai irudiez baliaturik.
3. Ulertu eta esanahiaz hausnartu. Kantaren ulermena ziurtatzeko galdera batzuk egingo ditugu eta kantan esaten den informazioa hasierako aurreikuspenekin alderatuko dugu: non bizi zen erbia? eguna non ematen zuen? eta gaua? zer koloretakoa zen? begiak nolakoak zituen? eta buzтана? eta belarriak?... Zer gertatu zitzaion? Nork harrapatu zuen? Eta nola bukatu zen haren istorioa?

4. Testu idatziaren gaineko lanketa. Kantaren testua (euskara batuan) emango diegu ikasleei eta horren gainean honako ariketak egingo ditugu:

- Deskribapenak. Erbia deskribatzeko erabili diren hitzei ohartarazteko esango diegu. Testuan identifikatu beharko dituzte:

erbia

gauez	soroan jaten
egunez	mendian
gorputza	gorria
begiak	larriak
buztanamotza	
belarriak	luzeak

Beste animalia batzuen deskribapena egiteko eskatuko diegu. Adjektiboak erabiltzera bultzatuko ditugu ikasleak: ttikia, tentea, iluna, argia, zabala, zorrotza... adjektiboak indartzeko bikoiztapen indargarriak proposatuko dizkiegu (ttiki-ttikia, zabal-zabala...¹). Zenbait atzizki erabiltzeko aukera ere emango diegu, esaterako *-tsu* (iletsu, zorritsu...).

satorra

gauez	sator-zuloan lotan
egunez	lur azpian zuloak egiten
gorputza	nabarra
begiak	
buztana.....	
belarriak	

hontza

gauez	hegalean eta harrapaketan
egunez	habian lotan
gorputza	horixka
begiak	
buztana.....	
belarriak	

- Ahapaldiak (edo estrofak) eta metrika. Ikasleei kanta osatzen duten ahapaldiez galdegingo diegu eta bertso-lerroak osatzen duten silabak zenbatzeko eta barra batez (/) bereizteko eskatuko. Ahapaldiak metrika aldetik eredu berari jarraikitzen diotela nabarmenduko dugu.

-----	(7 silaba)
-----	(6 silaba)
-----	(7 silaba)
-----	(6 silaba)

- Errima. Errimaz ohartaraziko diegu. Kanta berriz abestuko dugu baina bertso-lerro bakoitzaren bukaeran gelditurik. Maisu edo maistra hasiko da eta ikasleek azken hitza errepikatuko dute. Testu idatzian errima zein bertso-lerrotan agertzen den identifikatu eta azpimarra dezatela eskatuko diegu:

Erbi hori zebilen

beti pikardian;
gauez soroan jan eta
egunez mendian.

5. Zabaltzeko jarduera. Bukatzeko, kanta narrazio bihurtu. Erbiaren kantan entzun dugun istorioa ipuin bihurtzeko eskatuko diegu ikasleei. Kontakizunean erbiaren deskribapena sartu behar dute eta kanta kontatzen dituen gertaerak ipuin moduan antolatu behar dituzte.

Erbi ori zebillen

Arantza Almoguera

Kantu honetan alderdi erritmikoak eta melodikoak landuko ditugu eta ez entzun, imitatu eta errepikatzearen bidez, musika irakurketaren bidez baizik.

Erritmoaren lanketari dagokionez, beltzak eta kortxeak txandakatzen diren erritmo erraza duen kantua baita, partituratik abiatuak erritmoaren irakurketa bat (la notarekin) egin ahal izanen dugu eta gero polirritmia landu: haur talde batek pultsua markatuko du; beste batek azentua; eta hirugarren talde batek, kantuaaren erritmoaren eskema. Eta taldeak, kantua abestuko dugu musika noten bidez. Irakurketa errazagoa izan dadin noten txandaka arituko dira egiteko horietan. Jarduera hori gorputz perkusioaren bidez edo perkusio txikiko instrumentuen bidez burutu ahal izanen dugu.

Gero, partitura aurrean dugula izenak idatzi ahal izanen dira. Behin ikasiz gero, hitza jarriko diogu eta buruz ikasiko dugu.

Horretaz gain, kantua behin baino gehiago baina tonalitate desberdinetan abesten ahal dugu, hau da, aldian-aldian erreferentzia nota desberdina emanen diegu entzuketara eta afinazio lana egin dezaten.

Kamishibai teknikaz baliatzeak ikasle bakoitzak jarraitu ahala kantua bakarka abestea ahalbidetzen du. Guztiek interpretazio bakoitza entzuten dute eta interpretazio bakoitzaren kalitatea baloratu ahal izanen dute. Hala, ikasleek ikusle edo entzule direlarik hartu behar dituzten jarrerekin zerikusia duten alderdi oso garrantzitsuak jorratuko ditugu, bai eta besteen produkzioei erakutsi beharreko errespetua ere landuko dugu. Azkenik, gogokoen dituzten interpretazioak zein diren erraten ahal dute eta horren gainean solastatzen ahal gara.